


ARAZO-EGOERA

Izenburua: **Tranbia: 3. linea: Garraioak eta komunikazioak**

Arloa/ikasgaia Geografia eta Historia

Maila: DBHko 3. maila

Testuingurua



Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua da, eta *European Green Capital* izendatu zuten, 2012an. Horregatik, hiriak garraibide kolektibo eta ez kutsakorren alde egiten du.

Tranbia da garraio-aukera arrakastatsuenetako bat hiritarren artean, nahiz eta oraindik ez den heldu oso garrantzitsuak diren hiriko eremu batzuetara.

Arazoa

Egungo egoeran, eta hiriak ingurumenaren aldetik dituen ezaugarri eusteko, garraio kolektibo ez kutsakorra bultzatu behar dugu. Udal agintarien ustez, tranbiako lineak hedatzea da irtenbiderik onena. Horretarako, herritarrei proposamenak helarazteko eskatzen diete. Guk ere pentsatu dugu proposamen bat egitea linea-hedaketaren inguruan.

Xedea

Garraio kolektibo ez kutsakorra bultzatzeko egin daitezkeen ekintzak ezagutzea, bai eta hiri ingurumenaren aldetik egoera onean egoteko egiten duten ekarpena ere, eta ekintza horietan ikuspuntu sozialetik eta zibikotik parte hartzea.

Helburuak

- Garraio kolektiboen garapena hiriko biztanle-kopuruaren gorakadarekin eta hirien hazkundearekin erlazionatzea.
- Aztertzea nola inguruneak eta giza ekintzak elkarrekin eragiten duten hiri paisaien osaketan.
- Irudiak, planoak eta mapak interpretatzea, eskala, ezaugarri eta euskarri desberdinetan.
- Mapa tematikoak interpretatzea.
- Informazio geografikoko sistemen bidez informazioa lortzea
- Zenbait iturritatik datorren informazioa lortzea, interpretatzea eta erregistratzea.
- Ingurumenaren aurkako erasoak murriztera zuzendutako jardueraren proposamenak iradokitzea eta egitea, ikasleek dituten aukeren barruan.

Ataza

Txosten baten bidez diseinatzea eta justifikatzea tranbia-linea berri bat jartzeko premia, hiriko eremu garrantzitsuak lotzeko.

Jarraibideak

- Egoera arazotsua aurkeztuko da, eta lan-plana adostuko.
- Banakako eta taldeko lana egingo dute.
- Zona berrien premiak eta ezaugarriak aztertuko dituzte (tranbia haietara heltzea nahi dugun zonez ari gara).
- Tranbia-linea berriaren premia justifikatzeko informazioa bilatuko dute.
- Zona berrietara joateko egunero zenbat bidaia egiten diren aztertuko dute.
- Tranbia-linean beste linea bat sartzeko premia justifikatuko dute, aukeratutako puntu hauek lotzeko: aireportua, Mendizorrotza, EHUko unibertsitate-campusa eta autobus-geltokia.
- Aztertuko eta diseinatutako dituzte tranbiaren ibilbidea eta egin beharreko geralekuak.
- Tranbien maiztasuna antolatuko dute, puntako orduetarako eta haran-orduetarako.
- Prozesua eta lortutako ikaskuntza ebaluatuko dute (koebaluazioa eta autoebaluazioa).